contabilidad, por diferencia entre el activo y el pasivo, siempre que aquella se ajuste a lo dispuesto en el Código de Comercio, excepto en lo que se refiere a bienes inmuebles, vehículos, embarcaciones y aeronaves, que se computarán en todo caso por el valor que resulte de lo dispuesto en los artículos 9 y 17, respectivamente, de esta Norma Foral, salvo en los supuestos en los que el valor contable sea superior al que resulte de la aplicación de los mencionados preceptos.

Se entenderán afectos a actividades económicas los bienes de acuerdo con las normas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Los activos a que se refieren las reglas 5.<sup>a</sup> y 6.<sup>a</sup> del artículo 27 de la citada Norma Foral se entenderán afectos en idéntica proporción en la que sus gastos tengan la consideración de deducibles según dichas reglas.

En defecto de contabilidad, o cuando ésta no se ajuste a lo dispuesto en el Código de Comercio, la valoración será la que resulte de la aplicación de las demás normas de este impuesto.

**Artículo 11. Depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo.**

Los depósitos en cuenta corriente o de ahorro, a la vista o a plazo, que no sean por cuenta de





agerikoak edo eperakoak, bai eta diruzaintza-kudeaketako kontuak nahiz finantza-kontuak eta antzerakoak ere, zergaren sortzapen-egunean duten saldoaz hartuko dira kontuan, baldin eta saldo hori urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa baino txikiagoa ez bada, orduan azken hori aplikatuko baita.

terceros, así como las cuentas de gestión de tesorería y cuentas financieras o similares, se computarán por el saldo que arrojen en la fecha del devengo del impuesto, salvo que aquél resultase inferior al saldo medio correspondiente al último trimestre del año, en cuyo caso se aplicará este último.

Batez besteko saldo hori kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko ez zergadunaren ondarean jasota dauden ondasun-eskubideak eskuratu ahal izateko gordailuotatik ateratako funtsak, ez haren ondarean dauden beste kontu batzuetara aldatzeko ateratakoak, ez eta zorrak kitatu edo gutxitzeko atera direnak ere.

Para el cálculo de dicho saldo medio no se computarán los fondos retirados para la adquisición de bienes y derechos que figuren en el patrimonio del contribuyente, para su traslado a otras cuentas que figuren en su patrimonio o para la cancelación o reducción de deudas.

Mailegu edo kreditu baten ziozko zorraren zenbatekoa lehen lerroaldean aipatzen diren kontuetako batean sartu bada urteko azken hiruhilekoan, zenbateko hori ez da kontuan hartuko batez besteko saldoa zehazterakoan, eta, zor gisa ere, ez da kengarria izango.

Cuando el importe de una deuda originada por un préstamo o crédito haya sido objeto de ingreso en el último trimestre del año en alguna de las cuentas a que se refiere el párrafo primero, no se computará para determinar el saldo medio y tampoco se deducirá como tal deuda.

**12. artikulua. Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.**

**Artículo 12. Valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados.**

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzan duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan duten batez

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, negociados en mercados organizados, se computarán según su valor de negociación media del cuarto trimestre





besteko negoziazio balioaren arabera konputatuko dira, edozein izanik ere baloreon izendapena, ordezkaitza eta lorturiko etekinen izaera.

**13. artikulua. *Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkaitzen duten gainerako baloreak.***

Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkaitzen duten beste baloreak (alegia, aurreko artikulukoak ez direnak) balio nominalaren arabera konputatuko dira, eta amortizazio- edo itzulketa-primarik egonez gero, prima horiek ere batuko zaizkio balio horri, edozein izanik ere baloreon izendapena, ordezkaitza eta lorturiko etekinen izaera.

**14. artikulua. *Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkaitzen duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak.***

Bat. Edozein motatako erakundeen kapital sozialeko edo funts propioetako akzioak edo partaidetzak, merkatu antolatuetan negoziatzen badira, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan duten batez besteko negoziazio-balioaren arabera konputatuko dira; inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak, ordea, ez dira horrela konputatuko.

Bi. Merkatu antolatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoek jaulki bai baina oraingoz kotizazio ofizialean onartuta ez dauden akzio

de cada año, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

**Artículo 13. *Demás valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios.***

Los valores representativos de la cesión a terceros de capitales propios, distintos de aquéllos a que se refiere el artículo anterior, se valorarán por su nominal, incluidas en su caso, las primas de amortización o reembolso, cualquiera que sea su denominación, representación y la naturaleza de los rendimientos obtenidos.

**Artículo 14. *Valores representativos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad, negociados en mercados organizados.***

Uno. Las acciones y participaciones en el capital social o fondos propios de cualesquiera entidades jurídicas negociadas en mercados organizados, salvo las correspondientes a Instituciones de Inversión Colectiva, se computarán según su valor de negociación media del cuarto trimestre de cada año.

Dos. Cuando se trate de suscripción de nuevas acciones no admitidas todavía a cotización oficial, emitidas por entidades jurídicas que





berriak harpidetzen badira, akzio horien balioa honako hau izango da: titulu zaharrek harpidetza-eparean barruan izan zuten azken negoziazio-balioa.

Hiru. Ordaindu gabe dauden kapital-zabalkuntzetan, aurreko arauekin bat etorritik balioztatuko dira akzioak, guztiz ordainduta baleude bezala, eta ordaindu gabe dagoen zatia zegadunaren zor legeaz sartuko da.

**15. artikulua. *Edozein motatako erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten gainerako baloreak.***

Bat. Aurreko artikuluan aipatutakoez bestelako akzioak eta partaidetzak direnean, haien balioa hau izango da: onetsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa, baldin eta balantze hori, nahitaez edo borondatez, berrikusi eta egiaztatu egin bada eta auditoriatxostena aldekoa izan bada.

Balantzea ez bada auditatu edo auditoriatxostena ez bada aldekoa izan, berriz, hiru balio hauetatik handiena hartuko da: balio nominala; onetsitako azken balantzetik ateratzen den balio teorikoa, edo zergaren sortzapen-eguna baino lehen itxitako azken hiru ekitaldietan erakundeak lortu dituen mozkinen batez

koticen en mercados organizados, se tomará como valor de estas acciones el de la última negociación de los títulos antiguos dentro del período de suscripción.

Tres. En los supuestos de ampliaciones de capital pendientes de desembolso, la valoración de las acciones se hará de acuerdo con las normas anteriores, como si estuviesen totalmente desembolsadas, incluyendo la parte pendiente de desembolso como deuda del o de la contribuyente.

**Artículo 15. *Demás valores representativos de la participación en fondos propios de cualquier tipo de entidad.***

Uno. Tratándose de acciones y participaciones distintas de aquellas a que se refiere el artículo anterior, la valoración de las mismas se realizará por el valor teórico resultante del último balance aprobado, siempre que éste, bien de manera obligatoria o voluntaria, haya sido sometido a revisión y verificación y el informe de auditoría resultará favorable.

En el caso de que el balance no haya sido auditado o el informe de auditoría no resultase favorable, la valoración se realizará por el mayor valor de los tres siguientes: el valor nominal, el valor teórico resultante del último balance aprobado o el que resulte de capitalizar al tipo del 20 por 100 el promedio de los





bestekoa 100eko 20ko tasan kapitalizatuz lortzen den kopurua.

Horretarako, mozkin gisa konputatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbarako kopuruak, baina bazter utziko dira balantzeak erregularizatzeko edo eguneratzeko erreserbetarako kopuruak.

Bi. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzioak eta partaidetzak konputatzeko, kontuan hartuko da akzio-partaidetza horiek zergaren sortzapen-egunean duten likidazio-balioa. Horretarako, balantzean sartutako aktiboak haien legeria zehatzean jasotako arauekin bat etorritz balioztatuko dira, eta hirugarrenetik betebeharrak kengarriak izango dira.

Hiru. Bazkideek edo kooperatiba-kideek kooperatibaren kapital sozialean duten partaidetzaren balioa zehazteko, kontuan hartuko da zer den ordaindutako ekarpen sozialek -nahitaezkoek edo borondatezkoek- kooperatibak onartutako azken balantzean zuten zenbateko osoa; itzuli gabeko sozietate-galerak egonez gero, galerok kendu egingo dira.

Lau. Artikulu honetan xedatzen dena betetzeko, akzio eta partaidetzen balioztapen egokiak jasotzen dituzten ziurtagiriak eman beharko dizkiete erakundeek bazkide, elkarteko kide

beneficios de los tres ejercicios sociales cerrados con anterioridad a la fecha del devengo del Impuesto.

A este último efecto, se computarán como beneficios los dividendos distribuidos y las asignaciones a reservas, excluidas las de regularización o de actualización de balances.

Dos. Las acciones y participaciones en el capital social o en el fondo patrimonial de las Instituciones de Inversión Colectiva se computarán por el valor liquidativo en la fecha del devengo del impuesto, valorando los activos incluidos en balance de acuerdo con las normas que se recogen en su legislación específica y siendo deducibles las obligaciones con terceros.

Tres. La valoración de las participaciones de los socios y socias o asociados y asociadas, en el capital social de las cooperativas se determinará en función del importe total de las aportaciones sociales desembolsadas, obligatorias o voluntarias, resultante del último balance aprobado, con deducción, en su caso, de las pérdidas sociales no reintegradas.

Cuatro. A los efectos previstos en este artículo, las entidades deberán suministrar a los socios y las socias, asociados y asociadas o partícipes certificados con las valoraciones





edo parte-hartzaileei.

**16. artikulua. *Bizi-aseguruak eta aldi baterako errentak edo biziartekoak***

Bat. Bizi-aseguruak zerga sortzen den unean duten erreskate-balioaren arabera zenbatuko dira.

Hala ere, zergaren sortzapen-egunean hartzaileak ez badu erabateko erreskate-eskubidea baliatzeko ahalmenik, aseguruaren zenbatekoa izango da zuzkidura matematikoak egun horretan hartzailearen zerga-oinarrian duen balioa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, heriotzaren edo baliaezintasunaren edo bestelako arrisku-berme osagarrien kasuan soilik jasotzen badituzte prestazioak.

Bi. Aldi baterako edo biziarteko errentak, hain zuzen diru-kapitala, ondasun higigarriak edo higiezinak ematearen ondorioz eratutakoak, zergaren sortzapen-datan duten kapitalizazio-balioaren arabera zenbatu beharko dira, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan pentsioak eratzeko ezartzen diren arau berak aplikatuta.

Hala ere, bizi-aseguru batetik aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen direnean, horiek artikulua honen lehenengo apartatuan

correspondientes.

**Artículo 16. *Seguros de vida y rentas temporales o vitalicias***

Uno. Los seguros de vida se computarán por su valor de rescate en el momento del devengo del impuesto.

No obstante, en los supuestos en los que el tomador no tenga la facultad de ejercer el derecho de rescate total en la fecha de devengo del impuesto, el seguro se computará por el valor de la provisión matemática en la citada fecha en la base imponible del tomador.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no se aplicará a los contratos de seguro temporales que únicamente incluyan prestaciones en caso de fallecimiento o invalidez u otras garantías complementarias de riesgo.

Dos. Las rentas temporales o vitalicias, constituidas como consecuencia de la entrega de un capital en dinero, bienes muebles o inmuebles, deberán computarse por su valor de capitalización en la fecha del devengo del impuesto, aplicando las mismas reglas que para la constitución de pensiones se establecen en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

No obstante, cuando se perciban rentas, temporales o vitalicias, procedentes de un seguro de vida, éstas se computarán por el valor





ezarritako balioan zenbatuko dira.

establecido en el apartado Uno de este artículo.

**17. artikulua. *Bitxiak, luxuzko larrukiak eta ibilgailu, ontzi eta aireontziak***

**Artículo 17. *Joyas, pieles de carácter suntuario y vehículos, embarcaciones y aeronaves.***

Zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hartuko da aintzat hauek guztiak konputatzeko: bitxiak, luxuzko larrukiak, automobilak, bi edo hiru gurpileko eta 125 zentimetro kuboko edo gorako zilindrada duten ibilgailuak, atseden- edo kirol-ontziak, hegazkinak, hegazkin txikiak, belaontziak eta gainerako aireontziak.

Las joyas, pieles de carácter suntuario, automóviles, vehículos de dos o tres ruedas cuya cilindrada sea igual o superior a 125 centímetros cúbicos, embarcaciones de recreo o de deportes náuticos, aviones, avionetas, veleros y demás aeronaves, se computarán por el valor de mercado en la fecha de devengo del impuesto.

Merkatu-balioa zehazteko, zergaren sortzapen-egunean ibilgailu erabilientzat indarrean dauden balioztapen-taulak erabili ahal izango dituzte zergadunek. Taula horiek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onesten ditu, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako zein Oinordetza eta Dohaintzen Zergarako.

Los y las contribuyentes podrán utilizar, para determinar el valor de mercado, las tablas de valoración de vehículos usados aprobadas por la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas, a efectos del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados y del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, que estuviesen vigentes en la fecha de devengo del impuesto.

**18. artikulua. *Arte-objektuak eta antigoaleko objektuak***

**Artículo 18. *Objetos de arte y antigüedades.***

Bat. Arte-objektuak edo antigoaleko objektuak konputatzeko, objektuok zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-balioa hatuko da aintzat.

Uno. Los objetos de arte o antigüedades se computarán por el valor de mercado en la fecha de devengo del impuesto.







Bi. Ondarearen gaineko zergaren Foru arauaren 5. artikulua lehen zenbaitik bosgarrenera artean jasotzen diren salbuespenak gorabehera, honako hauek hartuko dira arte-objektutzat eta antigoaleko objektutzat:

a) Arte-objektuak: pinturak, eskulturak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta antzeko beste lan batzuk, baldin eta jatorrizkoak badira.

b) Antigoaleko objektuak: ehun urte baino gehiago duten ondasun higigarriak (baliagarriak zein apaingarriak), baina arte-objektuak ez direnak, baldin eta azken ehun urteotan ez badira aldatu ondasunon jatorrizko ezaugarri nagusiak, aldakuntzak edo konponketak direla bide.

### 19. artikulua. *Eskubide errealak.*

Gozamen-eskubide errealak eta jabetza soila Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira; hala nahi izanez gero, kasuan kasuko ondasunari foru arau honetako arauekin bat esleitu zaion balioa hartuko da erreferentzia moduan.

### 20. artikulua. *Administrazio-emakidak*

Jabari edo titulartasun publikoko zerbitzuak

Dos. Sin perjuicio de la exención que se contempla en los números Uno a Cinco del artículo 5 de la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio, se entenderá por:

a) Objetos de arte: Las pinturas, esculturas, dibujos, grabados, litografías u otros análogos, siempre que, en todos los casos, se trate de obras originales.

b) Antigüedades: Los bienes muebles, útiles u ornamentales, excluidos los objetos de arte, que tengan más de cien años de antigüedad y cuyas características originales fundamentales no hubieran sido alteradas por modificaciones o reparaciones efectuadas durante los cien últimos años.

### Artículo 19. *Derechos reales.*

Los derechos reales de disfrute y la nuda propiedad se valorarán con arreglo a los criterios señalados en el impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, tomando, en su caso, como referencia el valor asignado al correspondiente bien de acuerdo con las reglas contenidas en la presente Norma Foral.

### Artículo 20. *Concesiones administrativas.*

Las concesiones administrativas para la





edo ondasunak ustiatzeko administrazio-emakidak, euren iraunaldia gorabehera, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan adierazitako irizpideen arabera balioztatuko dira.

explotación de servicios o bienes de dominio o titularidad pública, cualquiera que sea su duración, se valorarán con arreglo a los criterios señalados en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

**21. artikulua. *Jabetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak***

**Artículo 21. *Derechos derivados de la Propiedad Intelectual e Industrial.***

abetza intelektual eta industrialaren ondoriozko eskubideak, hirugarren batengandik eskuratutakoak badira, eskuraketa-balioaz sartu beharko dira eskuratzailaren ondarean, foro arau honetako 10. artikuluan ezartzen dena gorabehera

Los derechos derivados de la Propiedad Intelectual e Industrial, adquiridos de terceros, deberán incluirse en el patrimonio del adquirente por su valor de adquisición, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 10 de esta Norma Foral.

**22. artikulua. *Kontratuen aukerak***

**Artículo 22. *Opciones contractuales.***

Kontratuen aukerak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen gaineko Zergan ezartzen denaren arabera balioztatuko dira.

Las opciones de contratos se valorarán de acuerdo con lo que establece el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

**23. artikulua. *Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasunak eta eskubideak***

**Artículo 23. *Demás bienes y derechos de contenido económico.***

Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun-eskubideon kasuan, zergadunari eratzikigarriak badira, zergaren sortzapen-egunean duten merkatu-prezioa izango da ondasun-eskubideon balioa.

Los demás bienes y derechos de contenido económico, atribuibles al o a la contribuyente, se valorarán por su precio de mercado en la fecha de devengo del impuesto.





## 24. artikulua. *Zorren balioztapena*

Bat. Zorren balioa zergaren sortzapen-egunean duten balio nominala izango da, eta behar bezala ziurtaturik daudenak bakarrik izango dira kengarriak.

Bi. Honako hauek ez dira kengarriak:

a) Salbuetsitako ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak. Salbuespena partziala denean, zorren zati proportzionala izango da kengarria, hala badagokio.

b) Bermaturiko zenbatekoak, harik eta abal-emailea zorra ordaintzera behartuta egon arte, hots, kobratzeko eskubidea zordun nagusiaren aurka erabili eta hark ordaindu ez duenera arte. Betebehar solidarioa egonez gero, abalaturiko zenbatekoak ez dira kengarriak izango, harik eta eskubidea abal-emailearen aurka erabiltzen ez den arte.

c) Ondasun baten eskuraketako prezio geroratua bermatzen duen hipoteka, nahiz eta prezio geroratua edo bermaturiko zorra kengarriak izan.

Hiru. Ezein kasutan ez dira kengarri izango ondasunak edo eskubideak eskuratzeko harturiko zorrak, zor horrek ondasun-eskubideoi zerga honen arauen arabera

## Artículo 24. *Valoración de las deudas.*

Uno. Las deudas se valorarán por su nominal en la fecha de devengo del impuesto, y sólo serán deducibles siempre que estén debidamente justificadas.

Dos. No serán objeto de deducción:

a) Las deudas contraídas para la adquisición de bienes o derechos exentos. Cuando la exención sea parcial, será deducible, en su caso, la parte proporcional de las deudas.

b) Las cantidades avaladas, hasta que el avalista esté obligado a pagar la deuda, por haberse ejercitado el derecho contra el deudor principal y resultar este fallido. En el caso de obligación solidaria, las cantidades avaladas no podrán deducirse hasta que se ejercite el derecho contra el avalista.

c) La hipoteca que garantice el precio aplazado en la adquisición de un bien, sin perjuicio de que sí lo sea el precio aplazado o deuda garantizada.

Tres. En ningún caso serán objeto de deducción las deudas contraídas para la adquisición de bienes o derechos en un importe superior a la valoración que corresponda de acuerdo con las





dagokien balioa gainditzen duen zatian.

normas de este impuesto.

**25. artikulua. *Zerga-oinarriaren zehaztapena.***

**Artículo 25. *Determinación de la base imponible.***

Zerga-oinarria zehazteko, oro har, zuzeneko zenbatespenaren metodoa erabiliko da.

Con carácter general la base imponible se determinará en régimen de estimación directa.

Zergei buruzko Foru Arauko 51. artikuluan jasotzen diren inguruabarretako bat gertatzen bada, zerga-oinarrien zeharkako zenbatespen metodoa aplikatuko da.

Cuando concurren las circunstancias previstas en el artículo 51 de la Norma Foral General Tributaria, será aplicable el régimen de estimación indirecta de bases tributarias.

**26. artikulua. *Peritu-tasazioa.***

**Artículo 26. *Tasación pericial.***

Zergei buruzko Foru Arauaren 128. artikulua aipatzen duen peritu-tasazio kontrajarria bakarrik aplikatu dakieke foru arau honetako 17, 18 eta 23. artikuluetan aipatzen diren ondasun-eskubideei, salbu eta foru arau honetako 17. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoa erabiltzen denean.

La tasación pericial contradictoria a que se refiere el artículo 128 de la Norma Foral General Tributaria, sólo será de aplicación a los bienes y derechos mencionados en los artículos 17, 18 y 23 de esta Norma Foral, excepto cuando se haga uso de lo previsto en el párrafo segundo del artículo 17 de esta Norma Foral.

**27. artikulua. *Likidazio-oinarria.***

**Artículo 27. *Base liquidable.***

Zerga-oinarriari 800.000 euroko zenbatekoa kenduko zaio, gutxieneko salbuetsia dela eta.

La base imponible se reducirá, en concepto de mínimo exento, en 800.000 euros.

**28. artikulua. *Sortzapena.***

**Artículo 28. *Devengo.***

Zerga urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eta zergadunak egun horretan bere

El Impuesto se devengará el 31 de diciembre de cada año y afectará al patrimonio neto del cual





titulartasunpean duen ondare garbian izango du eragina.

sea titular el o la contribuyente en dicha fecha.

**29. artikulua. *Kuota osoa.***

**Artículo 29. *Cuota íntegra.***

Zergaren likidazio-oinarriari eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

La base liquidable del impuesto será gravada a los tipos de la siguiente escala:

Likidazio-oinarria, kopuru honetaraino (euroak) Base liquidable hasta euros	Kuota (euroak) Cuota euros	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, kopuru honetaraino (euroak) Resto base liquidable hasta euros	Aplikatzeko tasa (portzentajea) Tipo aplicable porcentaje
0	0	3.200.000,00	0,00%
3.200.000,00	0,00	3.200.000,00	1,50%
6.400.000,00	48.000,00	6.400.000,00	1,75%
12.800.000,00	160.000,00	3.200.000,00	2,00%
16.000.000,00	224.000,00	Hortik gorakoak En adelante	3,50%

**30. artikulua. *Kuota osoaren muga.***

**Artículo 30. *Límite de la cuota íntegra.***

1. Betebehar pertsonalaren zioz zergaren pean dauden zergadunen kasuan, zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoaren batura ezingo da izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren

1. La cuota íntegra de este impuesto conjuntamente con la cuota íntegra del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Patrimonio, no podrá exceder, para las y los contribuyentes sometidos al impuesto por obligación personal, del 60 por ciento de la base imponible general y





zerga-oinarriaren % 60 baino handiagoa.

del ahorro del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artikulu honetan aurreikusitako kalkulua egiteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan kuota osoaren mugari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira; hala ere, hiru zergen kuoten baturak apartatu honen lehen paragrafoan ezarritako muga gainditzen badu, zerga honen kuota murriztu egingo da, ezarri den mugara ekarri arte, baina murrizketa ezin izango da inola ere izan % 80tik gorakoa.

A efectos del cálculo previsto en este artículo, resultarán aplicables las reglas sobre el límite de la cuota íntegra establecidas en la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio, si bien, en el supuesto de que la suma de las cuotas de los tres impuestos supere el límite establecido en el primer párrafo de este apartado, se reducirá la cuota de este impuesto hasta alcanzar el límite indicado, sin que la reducción pueda exceder del 80 por 100.

2. Familia-unitate bateko kideek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan baterako tributazioa egitea aukeratzen dutenean, familiako kideek zerga horretan eta ondarearen gaineko zergan sortutako kuota osoak batu behar dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta zerga honen baterako kuota osoari dagokion muga kalkulatzeko. Hala badagokio, egin beharreko murrizketa subjektu pasiboen artean hainbanatuko da zerga honetan dagozkien kuota osoen proportzioan, aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Cuando los componentes de una unidad familiar hayan optado por la tributación conjunta en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el límite de las cuotas íntegras conjuntas de dicho impuesto, de la del Impuesto sobre el Patrimonio y de la de este impuesto, se calculará acumulando las cuotas íntegras devengadas por aquellos en estos dos últimos tributos. En su caso, la reducción que proceda practicar se prorrateará entre las y los contribuyentes en proporción a sus respectivas cuotas íntegras en este impuesto, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior.

### 31. artikulua. *Atzerrian ordaindutako zergak*

### Artículo 31. *Impuestos satisfechos en el extranjero.*

Tributatzen betebehar pertsonala badago, eta nazioarteko tratatuetan eta hitzarmenetan

En el caso de obligación personal de contribuir y sin perjuicio de lo que se disponga en los





xedatutakoa gorabehera, atzerrian ordaindutako zergen ondoriozko kenkaria aplikatu ahal izango da zerga honetan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako baldintzetan.

Tratados o Convenios Internacionales, resultará aplicable en este impuesto la deducción por impuestos satisfechos en el extranjero en los términos establecidos en la Norma Foral del Impuesto sobre el Patrimonio.

**32. artikulua. *Ondarearen gaineko zerga dela-eta sartu beharreko kuota.***

**Artículo 32. *Cuota a ingresar del Impuesto sobre el Patrimonio.***

Foru-arau honetan xedatutakoa aplikatuta ateratzen den kuotari ekitaldi horretan benetan ordaindutako ondarearen gaineko zergaren kuota kenduko zaio, eta ez da inola ere itzuli behar emaitza negatiboa, hala badagokio.

De la cuota resultante de la aplicación de lo dispuesto en esta Norma Foral se deducirá la cuota del Impuesto sobre el Patrimonio del ejercicio efectivamente satisfecho, sin que en ningún caso proceda la devolución del resultado negativo que, en su caso, pueda resultar.

**33. artikulua. *Ondare-erantzukizuna.***

**Artículo 33. *Responsabilidad patrimonial.***

Zerga honen ondorioz sortzen diren zorrak eta zehapenak –halakorik badago– Kode Zibilaren 1365. artikuluan aipatutakoen parekotzat hartuko dira, eta, beraz, ezkontideen araubidea ondasunen foru-komunikazioa bada, irabazpidezko ondasunetara edo irabazitako ondasunetara joko da zuzenean, Foru Ogasunaren aurrean halako zor edo zehapenengatik –halakorik badago– erantzuteko, baldin eta ezkontideetako batek hartutakoak badira.

Las deudas tributarias y, en su caso, las sanciones, por este impuesto tendrán la misma consideración de aquellas otras a las cuales se refiere el artículo 1365 del Código Civil y, en consecuencia, los bienes gananciales o los bienes ganados, si el régimen es de comunicación foral de bienes, responderán directamente frente a la Hacienda Foral por estas deudas, y, en su caso, sanciones, contraídas por uno de los cónyuges.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena orobat aplikatuko zaie legez eraturako izatezko

Lo previsto en el párrafo anterior resultará aplicable a las parejas de hecho legalmente





bikoteei, baldin eta bikote horretako kideek ezarritako ondare- eta ekonomia-araubideari Kode Zibileko manu hori aplikatu behar bazaio.

constituidas cuando al régimen económico patrimonial establecido por los miembros de la misma le resulte de aplicación dicho precepto del Código Civil.

#### **34. artikulua. *Aitorpena.***

#### **Artículo 34. *Declaración.***

Zergadunak behartuta daude aitorpena aurkeztera eta, hala badagokio, zerga-zorra ordaintzera, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez zehazten diren leku, modu eta epeetan.

Los y las contribuyentes están obligados a presentar declaración y, en su caso, a ingresar la deuda tributaria en el lugar, forma y plazos que se determinen mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas.

#### **35. artikulua. *Aitorpena aurkeztu behar dutenak.***

#### **Artículo 35. *Personas obligadas a presentar declaración.***

Zergadunek aitorpena aurkeztu beharko dute, baldin eta dagokien zerga-kuota, zerga arautzen duten arauen arabera zehaztu ondoren eta dagozkien kenkariak edo hobariak aplikatu ondoren, ordaindu behar badute.

Tienen la obligación de presentar declaración los y las contribuyentes cuya cuota tributaria, determinada de acuerdo con las normas reguladoras del impuesto y una vez aplicadas las deducciones o bonificaciones que procedieren, resulte a ingresar.

#### **36. artikulua. *Aitorpenaren aurkezpena.***

#### **Artículo 36. *Presentación de la declaración.***

Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez ezartzen diren modu, epe eta ereduetan aurkeztuko da aitorpena. Foru-agindu horrek ezarri ahal izango du aitorpenak noiz aurkeztu behar diren bitarteko telematikoen bidez, eta horretarako bete

La declaración se efectuará en la forma, plazos y modelos que se establezcan mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas, que podrá establecer los supuestos y condiciones de presentación de las declaraciones por medios telemáticos.







beharreko baldintzak.

Zergadunek aitopenetan dagozkien datu guztiak bete beharko dituzte, ezartzen diren dokumentu eta frogagiriak erantsi, eta Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez zehazten diren lekuetan aurkeztu.

Los y las contribuyentes deberán cumplimentar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las declaraciones, acompañar los documentos y justificantes que se establezcan y presentarlos en los lugares que se determinen mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Era berean, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-agindu bidez, zerga honen aitopena ondarearen gaineko zergaren aitopenearekin batera aurkeztu behar dela ezarri ahal izango da.

Asimismo, mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá establecerse la presentación de la declaración por este Impuesto junto con la declaración por el Impuesto sobre el Patrimonio.

### **37. artikulua. *Arau-haustek eta zehapenak***

### **Artículo 37. *Infracciones y sanciones***

Zerga hau dela-eta egindako arau-haustek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

Las infracciones tributarias en este Impuesto se calificarán y sancionarán con arreglo a lo dispuesto en la Norma Foral General Tributaria.

### **38. artikulua. *Jurisdikzio-ordena***

### **Artículo 38. *Orden jurisdiccional***

Bide ekonomiko-administratiboa agortu ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da foru-arau honetan aipatzen diren gaietako edozein dela-eta Administrazioaren eta zergadunen artean gerta daitezkeen izatezko eta zuzenbideko eztabaidak ebazteko jurisdikzio eskudun

La jurisdicción contencioso-administrativa, previo agotamiento de la vía económico-administrativa, será la única competente para dirimir las controversias de hecho y de derecho que se susciten entre la Administración tributaria y los y las contribuyentes en relación con cualquiera de las cuestiones a que se





bakarra.

refiere este artículo.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Arauk emateko gaikuntza.* Disposición final primera. *Habilitación normativa.*

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Saileko titularrak beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte foru-arau hau garatzeko eta aplikatzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia y la persona titular del departamento de Hacienda y Finanzas, dictarán cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.* Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera fortuna handien aldi baterako elkartasun-zerga sortzen den ekitaldietan aplikatuko da, Ekonomia Itunaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y será aplicable a los ejercicios en los que se devengue el Impuesto Temporal de Solidaridad de las Grandes Fortunas a partir de dicha fecha, en los términos establecidos por la Disposición Adicional Quinta del Concierto Económico.

